

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak funtzionarioen 358 plaza eskaintzen ditu, Hezkuntzan eta Osasunean gehienak

*Proposamena sindikatuei bihar aurkeztuko die Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean*

Miércoles, 11 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak enplegu finkoko 358 plaza eskainiko ditu Foru Administrazioan, eta haietatik 209 Osasunerako, 134 Hezkuntzarako, 10 Suhiltzaileen Partzuergorako izango dira, eta beste 5, adimen-urritasuneko pertsonentzat gordeko dira.

350 enplegu horiez gain, Nafarroak 30 plaza gehiago izango ditu Justizia Administrazioiko langileria-arloan; izan ere, zifra hori da Estatuak Foru Komunitateari esleitu diona 2015eko deialdian.

Foru Gobernuak gaurko bilkuran izan du enplegu publikorako eskaintza (EPE) proposamenaren berri, eta bihar, osteguna, aurkeztuko zaie Funtzio Publikoko Mahai Orokorreko sindikatuei.

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrássek prentsaurrekoan azaldu duenez, Gobernuak eskaintza honekin, "lege-mugek uzten duen tokiraino aurrera egin nahi du", kalitatezko enplegu publikoa egonkortu eta finkatzeko garaian; izan ere, deituko diren plaza gehienek gaur egun aldi baterako langileek okupaturako lanpostuak finko bihurtuko dituzte. Suhiltzaileen kasua da salbuespena, hemen erretiroagatik hutsik dauden postu berriak sustatzen baitira.

Plazek bereizitako bi jatorri dituzte. Alde batetik, 269, 2013, 2014 eta 2015ean metaturako enplegu publikorako eskaintzari dagokio (EPE). Postuak birjartzeko gehieneko kopuruaren batura da, eta urte bakoitzak Estatuari utzi dizkiona Aurrekontu Orokorren hurrengo legetan. Haietatik, 120 osasun-arloko 120 plaza dira, 134 irakasleak, 10 suhiltzaileak eta beste bost adimen-urritasuna duten pertsonentzat.

Bestalde, beste 89 plaza 2009ko EPEri dagozkio, 2011n bertan behera geratu zena. Osasunbiderako enpleguak dira guztiak.

Aipaturako lanpostuez gain, Nafarroako Gobernuak 89 mediku-laguntzako burutzak deituko ditu; Nafarroako Ospitalegunean bat egindako



Plaza gehienak Osasunbiderako izango dira.

zerbitzuetatik sortu dira, une honetan bitarteko eran beteta dauden, eta lehiaketa-oposizio bidez bete behar dira.

### **Plazen banaketa**

Osasunbideak lanpostu-kopuru handiena du.

Zehazki, medikuen 57 plaza (30 mediku-espezialista, 20 lehen-mailako arreta eta landa-eremuko larrialdi-zerbitzua eta 7, pediatria). Beste 56 plaza erizaintzakoak dira (50, erizaintza orokorra eta 6, espezialitatekoak). Azkenik, gizarte-laneko 7. Haiek guztiak, 2015eko EPEri dagozkio.

2009ko EPEri dagozkion plazak honako era honetan banatzen dira: 69 erizaintzako laguntzaile; 13 erradiagnostikoko teknikari, eta 7 emagin.

Haiei guztiei, jadanik aipatutako mediku-laguntzako 89 burutza horiek gehitu behar zaizkie.

Bestalde, Hezkuntzan, 134 plaza daude, eta haietatik 100 maisuentzat, beste 20 Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat eta 14 Departamentuko Ikuskapeneko arlorako. Gaztelania, euskara eta ingeleseko irakasleentzat deituko dira.

Azkenik, Justiziako langileen kasuan, 12 postu Izapidetzeko arloari dagozkio, 10 Laguntza Judizialeko arloari eta 8 Kudeaketa Prozesalari.

### **Epeak eta azterketak**

Eskaintza bihar, osteguna, aurkeztuko da Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, horri buruz sindikatuek zer iritzi duten eta haien proposamenak jasotzeko. Behin betiko baldintzak adostu ondoren, Nafarroako Gobernuak onetsiko du.

Enplegurako eskaintza publikoaren epe zehatzak ez dira erabaki oraindik. Nolanahi ere, aipatu beharra dago Hezkuntza Departamentuak oposizioak 2015-16 ikasturtean deitzea aurreikusten duela.

Bestalde, Osasun Departamentuak, plazak herritarrei eskaini aurretik, lekualdatzeen lehiaketak deitu eta erabaki beharko ditu; izapide hori aurtengo bigarren seihilekoan hastea aurreikusten da. Hori ez da beharrezkoa izango 2009ko EPEren 89 plazetarako, urrats hori lehenago egin baitzen deialdiak geratu aurretik. Osasun Departamentuak EPE horren ariketak 2016ko lehen seihilekoan egitea espero du.

Osasuneko eta irakaskuntzako langileen plazak lehiaketa-oposizio bidez beteko dira; suhiltzailearenak eta osasunekoak ez diren langilearenak, Osasunbideari atxikita izan arren, oposizioaren bidez.